

I. ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK, NAFARROAKO EHIZTARIEN TOKIKO ELKARTEENTZAKO LAGUNTZENAK, EHIZAZAINAK KONTRATATZEKO, EHIZA ESPEZIEEN HABITATA HOBETZEKO ETA KALTEAK PREBENITZEKO 2025. URTEAN

1. oinarria. Xedea

Oinarri hauen xedea da Nafarroako ehiztarien tokiko elkarteendako laguntzak arautzea, 2025eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean honako gastu hauen zati bat finantzatzeko: Nafarroako ehizazainak kontratatzea, ehiza-espezieek eragindako kalteak prebenitzeko jarduketak, eta ehiza-espezieen habitata hobetzeko jarduketak.

2. oinarria. Laguntzen helburua

Nafarroako ehizazainak kontratatzeako laguntzaren helburua da sustatzea langile profesionalak egon daitezela Nafarroako ehiza-barrutietan, modu egonkorrean, ehiza-baliabideen zaintzaz, jarraipenaz, kudeaketaz eta mantentzeaz arduratzeko.

Ehiza-espezieek eragindako kalteak prebenitzeko eta haien habitata hobetzeko laguntzek bi helburu dituzte. Batetik, espezie horiek eragindako kalteen arriskua gutxitzen laguntzea, eta, bestetik, zenbait espezieren habitataren harrera-ahalmena hobetzeko neurriak ezartzea; besteak beste, usapal arruntarentzat (*Streptopelia turtur*) eta eper gorriarentzat (*Alectoris rufa*),

3. oinarria. Entitate onuradunak

Onuradun izaten ahalko dira Nafarroako ehiza-barrutietan ehiza-aprobetxamenduen adjudikaziodun diren ehiztarien tokiko elkarteak, baldin eta beharkizun hauek betetzen badituzte:

3.1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debeku egoeraren batean ez egotea.

3.2. Laguntzak emateko ebazpen-proposamena egiten den unean, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatze aldera, interesdunari jakinarazten zaio eskabidean (II. eranskina) baimena ematen diola Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari egoera hori egiaztatzen duten datuak kontsultatzeko.

3.3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin zorrik ez izatea.

3.4. Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zehapenik ezarri ez izana arau-hauste administratibo astun edo oso astunagatik, azken bi edo hiru urteetan, hurrenez hurren, Nafarroako Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeari edo ingurumen-arloko beste edozein legeri dagokionez, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Ondorio horietarako, adierazitako epearen barruan administrazio-bidean irmo bihurtu diren zehapen-ebazpenak bakarrik hartuko dira kontuan.

Eskaeran berean dagoen erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina) aurkeztuko da, baldintza guztiak betetzen direla frogatzeko.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek, eta deialdia ebatzi arte eutsi beharko zaie.

4. oinarria. Jarduketa diruz lagungarriak

4.1. Nafarroako ehizazainak kontratatzea:

Laguntzen bidez, 2025eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean Nafarroako ehizazainak kontratatzearen ondoriozko kostuen zati bat finantzatuko da.

Baldintza hauek bete beharko dira:

- Kontrataturiko ehizazainak Nafarroako ehizazain-titulua izan behar du, irailaren 4ko 94/2012 Foru Aginduaren arabera.
- Ehizazainak ez du, deialdi honek hartzen duen aldian, desgaitua egon behar ehizarekin lotutako jardueretarako.
- Deialdiaren aldirako kontratatutako zerbitzuek 1.100 eurotik gorakoak behar dute izan (soldata gordina edo BEZa kanpo), eskaera bakoitzeko.

Nafarroako ehizazainen berezko lanak bakarrik izanen dira diruz lagungarriak:

- Ehizari buruzko datuen kontrol administratiboa egitea.
- Administrazioaren, ehiztarien eta nekazarien edo abeltzainen arteko bitartekari izatea.
- Kalteak kudeatzea (prebenitzea eta kontrolatzea).
- Zaintza.
- Ehiza-espezieen populazioen kontrola eta segimendua egitea.
- Harrapakarien kontrola.
- Habitata kudeatzea.

- Seinaleak eta beste azpiegitura batzuk (adibidez, usategiak) mantentzea: garbitzea, non eta nola dauden kontrolatzea, eta abar.
- Administrazioari laguntzea, ehizaren kudeaketa errazteko eskatzen zaionean.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoak ehiza-espezialitateko landazaintzat antolatzen dituen prestakuntza-ikastaroetara joatea.

Hala denean, kontratuan dirulaguntzaren xede ez diren beste zereginak zehaztu behar dira.

Eskabidean (II. eranskina) adierazi beharko da kontratatutako lanaren zer ehuneko dagokion ehiza-zaintzako berezko zereginei.

Ehiza-barruti batzuk elkartzen badira ehizazain bat kontratatzeko, guztiek bete beharko dituzte baldintza hauek.

4.2. Ehiza-espezieek eragindako kalteak prebenitzeko eta haien habitata hobetzeko jarduketak:

Diruz laguntzen ahalko dira jarraian adierazten diren jarduketek eta baldintza teknikoek eragindako gastuak (oinarri honetako Atik Gra bitarteko letrak), BEZa kanpo, 2025eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean eginak badira.

Ehiza-espezieen kalteak prebenitzeko eta haien habitata hobetzeko laguntzetarako, dirulaguntzaren xedeko jarduketan aurrekontuak 1.000 eurotik gorakoa behar du izan (BEZa kanpo).

Deskripzio-memoriako aurrekontuan sartutako prezioak ez badatoz bat Nafarroako baso-tarifekin, memorian justifikatu beharko dira. Tarifa horiek hemen kontsultatu daitezke: <https://www.navarra.es/eu/medio-ambiente/gestion-forestal/tarifas-para-obras-y-trabajos-forestales>

A. Laboreak babesteko hesi fisikoak

Dirulaguntzaren xede izanen dira inbertsio mota hauetatik datozen gastuak:

A.1 Laboreak babesteko sare-hesien kostu materiala, barnean direla horiek ongi funtzionatzen dutela bermatzeko beharrezkoak diren osagai guztiak.

Metro bat altu izanen dira gutxienez, eta hogeitazentimetro lurrean sartuta egon beharko dute.

Sare-hesiak, justifikatutako kasuetan izan ezik, labore iraunkorretan ezarriko dira, edo balio ekonomiko handikoetan, hala nola mahastietan, olibadietan, fruta-arbolen alorretan eta zainzuri, brokoli edo beste barazki batzuen sailetan.

A.2 Babes-hodien edo antzeko sistemen kostu materiala, barnean direla horiek ongi funtzionatzen dutela bermatzeko beharrezkoak diren osagai guztiak.

A.3 Laboreak babesteko hesi elektrikoen kostu materiala, barnean direla horiek ongi funtzionatzen dutela bermatzeko beharrezkoak diren osagai guztiak.

Hari kopuruek eta haien arteko tarteei kasu bakoitzerako egokiak izan beharko dute, eta baterien edo korrante elektrikoaren bidez elikatuko dira, halako moldean non haren intentsitatea etxeko abereentzat erabili ohi dena halako bi izanen baita.

Hesi fisikoen instalazioak eta mantentze-lanek eragindako gastu eta jarduketak ez dira diruz lagunduko.

Nolanahi ere, hornitutako materialak gutxienez 5 urteko balio-bizitza izan beharko du beti, eta IV. eranskinaren arabera justifikatu beharko da material hori entregatu dela.

Justifikatutako salbuespenetan izan ezik, lurzati jakin baterako sare motako materialak eta babes-hodiak ez dira diruz lagunduko, baldin eta lurzati horrek dirulaguntza jaso badu aurreko bosturtekoan.

B. Nekazaritza-lurzatietako belar-estalkia mantentzea

Jarduketa hauen gastuak izanen dira dirulaguntzaren xede:

B.1 Uztatu gabeko lur-zerrendak soroetan.

Lurzatiaren ertzeko lur-zerrendak, baldin eta dirulaguntza ematen denetik 2025eko irailaren 15era arte, gutxienez, ez bada haietako uztia bildu eta laboreak dentsitate funtzionala badu. Abuztuaren 15etik aurrera larratzen ahalko dira.

Zerrenda horiek, gutxienez, 5 x 50 metrokoak izanen dira, eta nekazaritza-lurzatiaren morfologiara egokitu daiteke haien forma.

B.2 Landu gabeko lur-zerrendak nekazaritzako lurzatietan.

Lugorri-zerrendak sortzea soroetan. Erein gabeko zerrendak sortuko dira, ahal dela, zereal-, ekilore- edo koltza-soroetan.

Zerrenda horiek ez dute prestakuntza lanik edo tratamendu fitosanitariorik jaso behar izan, eta belar-estalki naturala mantendu beharko da haietan.

Lehentasunez, sastrakadi edo basoen eta soroen arteko eremuetan sortuko dira.

Zerrenda horiek, gutxienez, 5 x 50 metrokoak izanen dira, eta nekazaritza-lurzatiaren morfologiara egokitu daiteke haien forma.

Zerrenda horiei bere horretan eutsi behar zaie 2025eko irailaren 15era arte. Abuztuaren 15etik aurrera larratzen ahalko dira.

B.3 Belar-estalkia mantentzea zurezko laboreen azpian.

Lehorreko lurretako nahiz ureztalurretako zurezko laboreen azpiko belar-estalkia mantentzearen kostuak: azalean laboratzea edo segatzea.

Mantentze-lanak behin edo bitan egin daitezke apirilaren 1a baino lehen eta abuztuaren 30aren ondoren, belar-estalkiaren egitura egokia izan dadin.

Gutxienez ere, zurezko laboreak hartzen ez duen azaleraren % 50eko belar-estaldura mantendu behar da, abuztuaren 30era arte.

Jarraian ematen den taulan, gehieneko prezio batzuk ageri dira; prezio horien gainean aplikatuko da B.1 eta B.2 jarduketaren dirulaguntzaren ehunekoa. Taula horretan, lehorreko lurretako errendimenduaren eta merkatuko prezioaren azken bost urteetako batez besteko balioak agertzen dira, Landa eta Ingurumen Estatistikaren Atalaren datu ofizialen arabera kalkulatuak:

Nekazaritza- eskualdea	5 urteko batez besteko balioa (2019-2023) (euro/ha)						
	I	II	III	IV	V	VI	VII
Garia	1.458,77	1.360,80	1.421,83	1.128,30	1.055,42	691,65	298,59
Garagarra	1.261,05	1.161,02	1.220,93	924,58	905,72	571,37	312,62
Oloa	1.117,16	1.052,14	1.038,41	792,94	779,83	475,51	193,33

(*) Gehieneko prezioa (euro/ha), BEZik gabea; haren gainean aplikatuko da uztatu gabeko lur-zerrendaren azaleraren araberrako laguntzaren ehunekoa. Landu gabeko lur-zerrendetarako, oloaren balioak aplikatuko dira.

C. Faunarentzako ereintzak

Jarduketa hauen gastuak izanen dira dirulaguntzaren xede:

C.1 Haziak ereitea, lurra prestatzeko lanak eta hazien kostua.

Lurzatiak lur goldagarritzat hartuko dira, edo, bestela, dagokion zurezko laboretzat. Ez da diruz lagunduko bestelako lurzatietan haziak ereitea, nahiz eta laboratuak izan, justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

Hazien nahasketa bat erein beharko da, honako hauetatik bi edo hiru erabiliz: lekadunak, landare oleaginosoak eta/edo zerealak. Ekilorea ere ereiten ahalko da.

Ereintza-dosia ekoizpenerako laboreetan erabilitakoa baino txikiagoa izan daiteke, eta gutxieneko dosi diruz lagungarria 50 kg/ha izanen da.

Ahal dela, ez da ongarri mineralik erabiliko, salbu eta justifikatuta badago; hots, tokiko baldintzak direla-eta bermatuta ez badago ereindakoa ongi haziko dela. Ezin izanen dira produktu fitosanitarioak erabili lurzati horietan, ez eta hazi blindaturik ere (fitosanitarioekin trataturiko haziak).

Irailaren 1era arte ez dira inola ere laboratu behar. Abuztuaren 15etik aurrera larratzen ahalko dira.

Ereiteko, gehienez ere, hektarea bat lagunduko da diruz, lurzati edo esparru bakoitzeko.

Dirulaguntzaren portzentajea aplikatzeko gehieneko prezioa (BEZik gabe) 564 eurokoa izanen da hektareako.

- C.2 C.1 jarduketan sartutako lurzatiak alokatu edo errentan hartzeagatiko kostuak. Dirulaguntzaren portzentajea aplikatzeko gehieneko prezioa (BEZik gabe) 215 eurokoa izanen da hektareako.

D. Sasiak garbitzea, fauna-espezieen habitata hobetzeko eta beste erabilera batzuekin bateragarri egiteko.

Jarduketa hauen gastuak izanen dira dirulaguntzaren xede:

- D.1 Zuhaixkak bakantzeko lanak, edo sastrakak eskuz edo makinaz garbitzekoak, ehiza-espezieendako balioa duten ekotonoak berreskuratze aldera laborantza-eremuen eta basoen arteko trantsizio-guneetan.

Sastrakak garbitzeko lanen ondoriozko eremuek, gutxienez, 5 x 25 metroak behar dute izan.

- D.2 Sastrakak garbitzeko jarduketak, ehiza-jarduera beste erabilera batzuekin bateragarri egiteko xedea dutenak.

Sastrakak garbitzeari dagokionez, gehienez ere bi hektarea lagunduko dira diruz sail bakoitzeko, eta azalera hori behar bezala definituko da deskripzio-memorian.

Jarduketa horiek sute-arriskuaren denboralditik kanpo egingen dira, eta geldialdi begetatiboan, landareak heze ez daudenean.

Oro har, ez dira apiriletik abuztura bitartean egingen, ugaltzeko eta habiak egiteko garaia baita. Beste muga batzuk ere ezartzen ahalko dira, kontuan hartuta jarduketa nola garatzen den eta zer arrisku egon daitezkeen faunarentzat eta, bereziki, espezie sentikorrentzat.

Bi metrotik gorako zuhaitz eta sastraken osotasuna zainduko da, eta zuhaixka-espezieak babestuko dira (iparraldeko nahiz hegoaldeko elorri zuriak, ipuruak, arkakaratsak eta abar), salbu eta berariazko baimena ematen bada horiek mozteko, dirulaguntza emateko ebazpenean.

E. Zuhaitzak eta/edo zuhaixkak landatzea multzoka, lerroan edo han-hemenka

Jarduketa hauen gastuak izanen dira dirulaguntzaren xede:

- E.1. Fauna-espezieentzat interesekoak diren idoiien ertzean landaretza sortu edo hobetzea, tamaina txikiko zuhaixka-espezieekin.

E.2. Hektarea batera arteko zuhaitziak sortzea.

E.3. Zuhaitzak edo zuhaixkak lerroan landatzea, baita heskaiak sortzea ere.

E.4. Zuhaitzak edo zuhaixkak han-hemenka landatzea, landaketa-marko zabaletan –gutxienez 5 x 5 metroko markoetan–, adaburuek azalera txikia estaltzen duten eremuetan.

E.5. Aurreko deialdietan egindako landaketak mantentzea.

Aurreko jarduketan barruan, gastu hauek izanen dira diruz lagungarriak:

- Lurra prestatzeko lanak, landarearen kostua eta landatzearen kostua.
- Egindako landaketak babesteko sistemen kostu materiala eta ezarpena.

Baldintza tekniko hauek bete beharko dira beti:

- Lehendik dagoen landaretza errespetatuko da.
- Espezie autoktonoak eta tokian tokira egokituak erabiliko dira bakarrik.

F. Fauna-espezieendako idoiak eta idoiien itxiturak

Jarduketa hauen gastuak izanen dira dirulaguntzaren xede:

F.1. Ehiza-faunako espezieentzat interesa duten idoiak sortzea.

Diruz lagungarriak izanen dira idoi txikiak egiteko materialen gastuak eta eraikuntza-gastuak. Idoi txikitzat hartuko dira 100 m³ baino bolumen txikiagoko edukiera dutenak eta 10 metroko diametroa gehienez, ez badira beste ezaugarri batzuk baimentzen, berariaz, laguntza emateko ebazpenean.

Agorraldian ere funtzionalak direla bermatzen duten tokietan jarriko dira, eta ez da onartuko sakanen hondoetan jartzea.

Diseinuak faunaren irteera ahalbidetu behar du, ez itotzeko.

F.2. Faunarentzat interesa duten idoi txikiak hobetu, konpondu edo garbitzeko lanak. Ur-ekosistemei loturiko landare-komunitatea mantendu beharko da ezponden zati batean, eta gutxienez perimetroaren % 20 hartuko du.

F.3. Basafaunako eta ehiza-faunako espezieek zeharkatu ditzaketen itxiturak sortzea. Diruz lagungarriak izanen dira materialaren kostua eta idoiengintzan itxiturak ezartzeko lanak.

Oro har, idoiak sortzeko edo hobetzeko ekintzetan 1,5 eta 2,5 metro arteko sakonera ezarri behar da. Ezpondek 4H/1V-ko gehieneko malda izan behar dute ertzetako tarteren batean, gutxienez. Zehaztapen horiek deskripzio-memorian jaso behar dira, eta, bestelako ezaugarriak proposatuz gero, memoria horretan azaldu behar da arrazoia.

G. Dokumentazio teknikoa prestatzea

Diruz laguntzen ahalko dira dokumentazio teknikoa prestatzea eta, hala badagokio, obratzuzendaritza, baldin eta deialdi honetan habitata hobetzeko edo kalteak prebenitzeko jasotako ekintzaren bat diruz laguntzen bada.

Dokumentazioa formatu digital editagarrietan aurkeztu beharko da. Zehazki, honako hauek aurkeztuko dira: III. eranskineko laburpen-fitxa, formatu digital editagarrian (.xls luzapena edo harekin bateragarria), eta kartografia georreferentziatua, ekintzak non egingen diren jasotzen duena, formatu digital editagarrian (.shp luzapena edo harekin bateragarria).

5. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

5.1. Ehizazainak kontratatze laguntzetarako, aipatu aldiari dagokion soldata gordinaren % 45 lagunduko da diruz, eta gehienez ere 6.000 euro emanen dira, kontraturiko ehizazain bakoitzeko.

- Kontratua zerbitzuak ematekoa baldin bada, kontratuan zer zenbateko dagokion deialdian ezarritako aldiari, horren % 45 lagunduko da diruz (BEZa kanpo), eta gehienez ere 6.000 euro emanen dira, kontraturiko ehizazain bakoitzeko.

5.2. Habitata hobetzeko eta kalteak prebenitzeko laguntzetarako, honako hau izanen da dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa:

- A modalitateko jarduketan eskaeratarako, hau da, laboreak babesteko hesi fisikoetarako (sare-hesiak, hesi elektrikoak, babes-hodiak), onartutako kostuaren % 80.
- B modalitateko (lur-zerrendak nekazaritza-lurzatietan) eta C modalitateko jarduketan eskaeratarako (faunarentzako ereintzak), onartutako kostuaren % 80.
- D (sastrakak garbitzea), E (landaketak) eta F (idoiak) modalitateetako eskaeratarako, % 75.
- G modalitateko jarduketatik eskatutako laguntzaren kasuan, aurreko jarduketetan diruz lagungarriak diren ekintzak gauzatzeko aurrekontuaren % 10eko dirulaguntza emanen da, eta gutxienez 200 euro eta gehienez 400 euro.

Nolanahi ere, dirulaguntzak eman eta ordaintzeko, behar adinako kreditua izan beharko da aurrekontuetan, eta Administrazioak baliabide ekonomiko aski izan beharko ditu eskaeraren gaineko ebazpen administratiboa emateko unean.

6. oinarria. Eskaerak eta eskatutako dokumentazioa noiz eta nola aurkeztu.

6.1. Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak 30 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari zuzenduko zaizkio. Ezarritako epearen barruan aurkeztutako azken eskaera bakarrik hartuko da kontuan.

6.2. Eskaerak aurkezteko modua

Eskaerak elektronikoki izapidetuko dira. Interneteko atarian argitaratutako deialdiaren fitxan sartu behar da: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak> Sarbidea hemen ere adieraziko da: <https://www.navarra.es/eu/ingurumena/nafarroan-ehizatzea>.

Halaber, frogagiriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoa aurkeztu ahaliko dira (<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Erregistro-Orokor-Elektronikoa>) edo beste administrazio publiko batzuetako erregistroetan, baldin eta aipatutako erregistroarekin elkarreragingarriak badira.

Eskaeretan, gaitutako helbide elektronikoa bakarria (GHEb) adierazi beharko da, bide hori erabiliko baita Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuaren eta entitate eskatzaileen arteko komunikazio eta jakinarazpenetarako.

6.3. Eskatzen den dokumentazioa

6.3.1. Ehizazainak kontratatze eskaerarako:

- II. eranskina - Eskabidea, datuak kontsultatzeko baimena eta erantzukizunpeko adierazpena dituen, behar bezala betea eta laguntza eskatzen duen elkarteko lehendakariak sinatua.
- Entitate eskatzaileak, laguntzak lehen aldiz jaso behar baditu edo horiek ordaintzeko kontua aldatu nahi badu, kontua erregistratu beharko du Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoko “*Banku-kontuak jakinaraztea, Foru Administrazioaren ordainketak jasotzeko*” fitxan: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/kontuen-eta-ordainketen-kontsulta>.
- Indarrean dagoen kontratua, iraupena eta garatu beharreko eginkizunak zehazten dituen. Kontratuan zehaztu beharko dira deialdi honen 4.1 oinarrian adierazitako zereginak.

6.3.2. Habitatak hobetzeko eta kalteak prebenitzeko eskaerarako, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- II. eranskina - Eskabidea, datuak kontsultatzeko baimena eta erantzukizunpeko adierazpena dituen, behar bezala betea eta laguntza eskatzen duen elkarteko lehendakariak sinatua.

- II. eranskina - Eskabidea, behar bezala betea eta laguntza eskatzen duen elkarteko lehendakariak sinatua.
- Entitate eskatzaileak, laguntzak lehen aldiz jaso behar baditu edo horiek ordaintzeko kontua aldatu nahi badu, kontua erregistratu beharko du Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoko “*Banku-kontuak jakinaraztea, Foru Administrazioaren ordainketak jasotzeko*” fitxan: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/kontuen-eta-ordainketen-kontsulta>.
- III. eranskina - “Ehiza-espezieen habitata hobetzeko eta kalteak prebenitzeko lanen laburpena” izeneko fitxa.
- Deskripzio-memoria. Eduki hauek izanen ditu, gutxienez:

A jarduketetarako (kalteak prebenitzea): deskribapen laburra, adierazita zer ehiza-espeziek eragin duten kaltea eta zer labore kaltetu diren.

B, C, D, E eta F jarduketetarako (ehiza-espezieen habitata hobetzea): eskatutako ekintza bakoitzaren deskribapena, 4.2 oinarriarekin bat, aurreikusitako kronograma eta aurrekontua. Sastrakak garbitzeko, landaketak egiteko eta idoiak sortzeko edo hobetzeko ekintzetarako, gainera, kartografia aurkeztu beharko da, zehazteko non egingen diren eskatutako jarduketa edo jarduketak.

- B eta C modalitateetako jarduketetarako, zer lurzatitan gauzatuko den ekintza, haren jabearen edo errentariaren berariazko baimena aurkeztu beharko da, deialdiaren oinarriekin bat datorrela adierazteko (VI. eranskinaren arabeko eredua).

Titulartasun publikoko lurzatien kasuan, adjudikazio-agiriaren kopia aurkeztu beharko da, hala badagokio.

- D, E eta F modalitateetako jarduketetarako, zer lurzatitan gauzatuko den ekintza, haren jabearen edo errentariaren berariazko baimena aurkeztu beharko da, deialdiaren oinarriekin bat datorrela adierazteko (VI. eranskinaren arabeko eredua).

Eskaera eta harekin batera aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoan, egiaztatuko da oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen diren edo ez.

Bete ezean, gehienez 10 eguneko epean zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, eta ohartaraziko zaio ezen, zuzendu ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta espediente artxibatzeke ebazpena emanen dela. Ebazpen hori jakinarazpen elektroniko bidez jakinaraziko zaio, eta gaitutako helbide elektroniko bakarrean (GHEb) kontsultatzen ahalko da.

7. oinarria. Dirulaguntza emateko balorazio-irizpideak.

Norgehiagokako prozedurari jarraikiz emanen dira laguntza hauek.

7.1. Balorazio-irizpideak, ehizazainak kontratatzeko dirulaguntzei aplikatzekoak:

Eskaerak ordenan jarriko dira, balorazio-irizpide hauek aplikatuz emandako puntuen arabera:

Atala	Kontzeptua	Puntuazioa
1	Ehiza-barrutiaren azalera osoa edo haren zati bat kalteak prebenitzeko plan batean sartuta egotea.	25
2	Ehiza-barrutiak salbuespeneko baimenak eta/edo erantzukizunpeko adierazpenak tramitatu izana ehiza-espezieek eragindako kalteengatik.	15

Eskaera batzuek puntuazio bera badute, lehentasun-ordenan aintzat hartuko da kalteen prebentziorako planean zeinek duen azalerarik handiena. Puntuazio bera duten ehiza-barrutiek ez badute kalteen prebentziorako planik, aplikatuko den irizpidea izanen da zein barrutik duen azalerarik handiena.

7.2. Ehiza-espezieen habitatak hobetzeko eta kalteak prebenitzeko neurriei aplikagarri zaizkien lehentasun-irizpideak:

Eskaerak ordenan jarriko dira, balorazio-irizpide hauek aplikatuz emandako puntuen arabera:

Atala	Kontzeptua	Puntuazioa
1	A modalitateko jarduketetarako eskabideak	30
2	B modalitateko jarduketetarako eskabideak	30
3	C modalitateko jarduketetarako eskabideak	30
4	D modalitateko jarduketetarako eskabideak	20
5	E modalitateko jarduketetarako eskabideak	15
6	F modalitateko jarduketetarako eskabideak	15
7	Tramitatutako eskaera, honako hauek erantsita: III. eranskineko laburpen-fitxa, formatu digital editagarrian (.xls luzapena edo harekin bateragarria), eta kartografia georreferentziatua, lanak non egingen diren zehazten duena, formatu digital editagarrian (.shp luzapena edo harekin bateragarria).	10

Eskaera batzuek puntuazio bera baldin badute, jarduketetan onetsitako aurrekontu handienaren irizpidea aplikatuko da, modalitateen lehentasun-ordena honi jarraikiz: A; B; C; D; E eta F.

8. oinarria. Instrukzio-organoa

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak izapidetuko ditu deialdi honetako laguntzak eman eta ordaintzeko prozedurak.

9. oinarria. Dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa

- 9.1. Instrukzio-organoak ofizioz ebaluatuko ditu eskaerak, oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideak, balorazio-bideak eta lehentasunak aintzat harturik; hori guztia, norgehiagokako prozedurari jarraikiz. Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuko langileek landa-bisitak eginen dituzte, bai eta beharrezkotzat jotzen dituzten jarduketak ere, erabakitzeko ea eskatutako inbertsioak egokiak diren.

Aurkeztutako eskabideei dagokienez, instrukzio-organoak proposatuko du dirulaguntza ematea edo, hala badagokio, ukatzea. Dirulaguntza emateko ebazpenean, ekintzak gauzatzeko baldintza espezifikoa jasotzen ahalko dira. Ukatu eginen dira ikuspuntu teknikitik egokiak ez diren ekintzak eta deialdi honen oinarrietan ezarritakora egokitzen ez direnak.

- 9.2. Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak, espedienteak ikusita eta aurrekontuan dagoen zenbatekoaren arabera, ebazpena emateko proposamen-txostena eginen du, Ehiza Kudeaketarako Atalaren bitartez, eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari igorriko dio. Ebazpen-proposamen horren bidez, laguntza emateko espedientearen jaso beharko da onuradunak betetzen dituela laguntza eskuratzeko behar diren baldintza guztiak.
- 9.3. Baldin eta ehizazainak kontratatzeko proposaturiko laguntzen guztizko zenbatekoa ez bada aurrekontuko partidan dagoen zenbatekoa adinakoa, laguntzen zenbatekoa % 50 handitzen ahalko da, eta 6.500 euro emanen dira gehienez ehizazain bakoitzeko.
- 9.4. Baldin eta kalteak prebenitzeko eta ehiza-habitata hobetzeko proposaturiko laguntzen guztizko zenbatekoa ez bada aurrekontuko partidan dagoen zenbatekoa adinakoa, laguntzen zenbatekoa handitzen ahalko da, lehentasun-ordena honi jarraikiz: % 85 arte, A jarduketen kasuan, eta % 80 arte, D, E eta F jarduketen kasuan.
- 9.5. Aurrekontuan diru aski ez egoteagatik instrukzio-organoak proposatzen badu eskatutako laguntza baino zenbateko txikiagoa ematea, onuradunari eskatzen ahalko zaio eskaera birformulatzeko, gauzatu beharreko jarduketak zenbateko horretara egokitzeko.

Birformulatutako eskaerak instrukzio-organoaren adostasuna lortu ondoan, eskaera hori, egindako jarduera guztiekin batera, organo eskudunari igorriko zaio, ebazpena eman dezan.

Nolanahi ere, eskaerak birformulatzen direnean, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaerarako ezarritako balorazio-irizpideak ere.

10. oinarria. Laguntza emateko ebazpena

Ebazpen-proposamena ikusirik, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak dirulaguntzak emateari buruzko ebazpena emanen du.

Ebazpena arrazoitua izanen da, eta haren oinarriak frogaturik egonen dira beti. Halaber, eskatzaile bakoitzaren ingurumen-, baso- eta ehiza-baimenari dagozkion alderdiak jasoko ditu.

Ebazpenean, dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda jasoko da, eta adieraziko da zer puntuazio eman zaion eskatzaile bakoitzari, 8. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideen arabera. Halaber, berariaz adieraziko da gainerako eskabideak ezetsi direla, halakorik bada, eta zergatik ezetsi diren.

Eskaerak aurkezteko azken egunetik hiru hilabeteko epean jakinaraziko da ebazpena, eta honako hauek jasoko ditu: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatzeko nahikoa den informazioa, eta onuradunak bete behar dituen baldintzak eta konpromisoak.

Laguntzak emateko ebazpena baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko da, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean ezarri bezala.

Dirulaguntzaren prozedura ebazteko ezarritako epea iragandakoan ez bada berariazko ebazpenik eman, ulertuko da eskaera ezetsi egin dela.

Aurkeztutako eskaeraren berariazko edo ustezko ezespenaren aurka interesdunek, administrazio publikoak ez badira, gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahaliko dute, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendua, administrazio-prozedura erkideari buruzko legeriari jarraikiz.

11. oinarria. Ekintzak aldatzea

Onuradunak beharrezkotzat jotzen badu diruz lagundutako ekintzaren batean aldaketak egitea, baldin eta aldaketak justifikatuta badaude eta ez badute 7. oinarrian lortutako puntuazioa aldatzen, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, aldatutako ekintza gauzatu baino 15 egun lehenago, gutxienez.

Kasu horretan, III. eranskina aurkeztu beharko da, azaltzeko zer zuzenketa eskatzen diren, baita aldaketen zergatia justifikatzeko memoria labur bat ere.

Memoria hori deialdi honen 6.2 oinarrian xedaturikoarekin bat prestatuko da.

Hamar eguneko epean, Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak onuradunari jakinaraziko dio aldaketa hori onartzen duen ala ez. Epe hori iraganik jakinarazpenik ez badago, ezetsitzat joko da.

Nolanahi ere, ez da aldaketarik onartuko baldin eta emandako zenbatekoa handitzea badakar.

12. oinarria. Egindako gastuen eta ordainketen justifikazioa

Gastuen eta ordainketen frogagiriak entregatzeko azken eguna **2025eko azaroaren 7a** izanen da.

Ahal dela, dokumentazioa PDF formatuan aurkeztuko da, eta JPG fitxategiak saihestuko dira.

Frogagiriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoa aurkeztuko dira (<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Erregistro-Orokor-Elektronikoa>), edo beste administrazio publiko batzuetako erregistroetan, baldin eta aipatutako erregistroarekin elkarreragingarriak badira, eta Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari zuzenduko zaizkio.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

12.1. Ehizazainak kontratatzeko:

a) Lan-araubideko kontratazioen kasuan:

- 2025eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra arte igorritako nominen kopia.

b) Zerbitzuak emateko kontratazioen kasuan:

- Gastuen fakturak, 2025eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartekoak, hornitzailearen eta ehiztarien tokiko elkartearen datu fiskalak adierazita.
- Bankuko ordainagiriak. Zenbatekoak bat etorri beharko du dagokion fakturarekin.

Agiriak jatorrizkoak edo kopiak izaten ahalko dira.

12.2. Habitata hobetzeko eta kalteak prebenitzeko:

- IV. eranskina. A motako jarduketetarako (kalteak prebenitzea): kasuan kasuko laukiak beteko dira babes-materialaren xedeko lurzatien zerrendarekin, babesaren xedeko laboreak adierazita, eta materialen hartzaileen sinadura jaso beharko da, hesi elektrikoaren kasuan izan ezik.
- Egindako gastuen fakturak, hornitzailearen eta ehiztarien tokiko elkartearen datu fiskalak adierazita, edo, hala badagokio, kontratua.
- Bankuko ordainagiriak. Zenbatekoak bat etorri beharko du dagokion faktura edo kontratuarekin.

600 eurotik beherako zenbatekoa duten fakturetarako, eskudirutan ordaintzea onartuko da, baldin eta behar bezala egiaztatzen bada.

- V. eranskina.- Egindako lanen fakturen eta gastuen zerrenda.

13. oinarria. Dirulaguntzaren ordainketa

Instrukzio-organoak behar diren kontrolak eginen ditu, egiaztatzeko betetzen direla deialdi honen oinarriak. Kontrol horiek egiteko, instrukzio-organoak joko du Foru Administrazioan edo beste administrazio batzuetan dauden erregistro ofizialetara edo eskura dauden bestelako informazio-iturrietara, betiere laguntza ordaintzeko unean dagoen informazioaren arabera. Kontrol horietan *in situ* bisitak egiten ahalko dira, ekintzak behar bezala gauzatzen direla egiaztatzeko.

Instrukzio-organoak egindako egiaztapenetan ondorioztatzen bada beheranzko desbideratzeak daudela entitate onuradunak aurkeztutako eskaerarekin alderatuta, ordainketa aipatu egiaztapenei egokituko zaie.

Ez da onartuko hasiera batean baimendutako aurrekontuari gehikuntzak egitea.

Egiaztagiriak azterturik, Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak ordaintzeko ebazpenaren proposamena igorriko dio Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari, eta, horrekin batera, txosten bat, frogatzen duena ezen entitate onuradunek bete dituztela beren betebeharrak, dirulaguntza kobratzeko eskubidea sortzen dutenak.

Ordainketa bakarrean pagatuko da dirulaguntza.

14. oinarria. Entitate onuradunen betebeharrak, murrizketak eta ordainketa ez gauzatzeko arrazoiak

Dirulaguntzaren onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako eginbeharrak bete beharko dituzte.

Bestelako dirulaguntzak edo laguntzak jasoz gero diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko, horren berri eman beharko zaio organo emaileari.

Dirulaguntza emateko ebazpenetan, oinarri arautzaile hauetan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legean ezarritako betebeharren bat bete ezean, esleitutako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da, eta, bidezkoa bada, diru hori itzuli egin beharko da, foru-lege horren 35. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Halaber, aurreko betebeharretakoa bat hein batean betetzen ez bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa doitzen ahalko da proportzionaltasun-printzipioari jarraikiz, edo, zein den kasua, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Dirulaguntza emanen dela jakinarazi eta hilabeteko epean, dirulaguntzen onuradunen gardentasun-betebeharrari buruzko adierazpena aurkeztuko da, laguntzen fitxan eskura dagoen ereduaren arabera (VII. eranskina). Adierazpen hori beti aurkeztu behar da, gardentasun-betebeharra izan (Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3.c) artikuluko baldintzak betetzeagatik) edo ez izan (kasu horretan, inguruabar hori jasoko da adierazpenean).

15. oinarria. Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Deialdi honen dirulaguntzak bateragarriak dira Foru Komunitateko Administrazioak, beste administrazio publiko batzuek, beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek edo partikularrek, estatukoak nahiz nazioartekoak izan, emandako beste laguntza batzuekin.

Kasu horretan, jarduera bererako emandako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik edo denak baturik, ezin da izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa. Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, baldin onuradunak helburu horrexetarako beste dirulaguntzaren bat jasotzen badu, Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikulua d) letran xedaturikoarekin bat.

Ezin izanen dira diruz lagundu, lurzati beretan eta kontzeptu berberengatik, “Estepako hegaztiendako lugorriak” eta “Ardiak larratzea estepako zereal-agrosistemetan” izeneko deialdietako laguntzak jasotzen dituzten jarduketak.

Ez dira diruz lagunduko toki jakin batzuetako jarduketak, kontzeptu berberengatik (zehazki, babes-hodiak), baldin eta nekazariak hartutako konpromisoen parte badira “Mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko laguntzetan”, edo “Beste ekoizpen-bide batzuk” jarduketaren barnean badaude (urriaren 11ko 857/2022 Errege Dekretuaren I. eranskina).

16. oinarria. Emandako dirulaguntzen publizitatea

Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 15. artikuluan xedatutakoarekin bat, Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuak jendaurrean jarriko ditu emandako dirulaguntzak, Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian (www.nafarroa.eus), honako hauek zehaztuta: deialdia, laguntza zein programari eta aurrekontu-kredituri egozten zaien, onuraduna, emandako diru kopurua eta dirulaguntzaren helburua.

Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 15.2 artikuluari jarraikiz, onuradunek, publizitate egokiaren bidez, aditzera eman behar dute dirulaguntzaren xede diren programek, jarduerak, inbertsioek eta edozein motatako ekintzek finantzaketa publikoa dutela.